

Lezo Urreiztieta hil da

Deia, 1981-05-10.

Bart, maiatzaren zortzia bederatzi bilakatzen ari zela, hil zorian daudenek bakarrik ezagutzen duten bidetxur estu-malkar horretatik joan da Lezo Urreiztieta betiko.

Gorputzez eta ekintzaz handia zen gizona, minbiziak jota baina oraindik gogoaz tunik zebilen azken hiru-lau hilabete horietan; hortaz hitz bat esaten ez bazuen ere, agerian zegoen denbora bateko tantai hura gain-behera betiko erortzen hasia zela: aurrena, argaltzen; gero, ahotsa galtzen, eta azken-azkeneko egun horietan, hain ezaguna zen bere memori harrigarri hura ahultzen hasi zitzaion; eta gizonaren gorputza kixkurtzen ari zitzaion neurri berean ume bihurtu zen berriz.

Arnasots estuetan zegoenean ere, sendikoak ez mintzearren kexurik ez zen aho hartatik irten.

Bere buru ahaltzu eta setati hartan zer ote zebilen jakiterik ez, noski.

Behar bada, Santurtzira egin zuen azken bidaia.

San Jorge egunez, apirilak 23, eraman zuen bere anai Itziar-ek; han Meza nagusia entzun, eta Kai-alden eta Sebas lehengusuaren etxean izan zen jendetza; banan bana, laster hilko den lagunari azken agurra egitera hurbildu zen mundua; betiko ohitura zuen lez, gero hilerrira, gurasoak, anai bat, senide eta lagun asko "ikustera", Lezok esaten zuen bezala. Hilerrietara egiten zituen bixita horiek ezagunak dira Donibanen eta lagun bat ehortzita dagoen beste herrietan; eta, noski, batez ere Santurtzin, orain dela 75 urte jaio zen herrian.

Eta hau ez da biografia bat egiteko garaia; laburki, joan zaigula esatekoa baizik.

Eta euskaraz, Lezok ezagutzen ez zuen eta horretxan minez bizi zen hizkuntzan; euskal mezetara "musika" hori entzuterako joaten zen; askotan esan ohi zidan, bere bizitzako frakasorik haundiena (eta asko izan zituen) euskaraz ez jabetzea izan zela.

Baina biografia bat ez bada ere, hitz bi esan beharko ezagutzen ez zuten euskaldunentzat.

Manuel Irujo jaunak hain berez zuen grazia haundiarekin esaten zuen bezala, Lezok, XVII, gizaldian jaio behar zuen eta XX. mundura erori zen pirata bat zen.

Ba, pirata hau Euskadiren zerbitzuan bizi izan da. Inork bizibide bat bakarrik aukeratu behar balioke: *abertzale*, izango litzateke xuxenena. Gaztetandik hasi zen garai hartako Santurtzi zailean bere aita bergarar eta itsasgizonaren eskutik euskal jaietara joaten; gero, larden bezain ausarta zen gaztetxo hura Eusko-Langileei Bilboko kaiean sortzen zitzaizkien borroka, eta borroka galdu (sozialistak eta anarkistak ziren nagusi despotak orduan) guztietan han izaten zen; Manu Robles Arangiz lekuko; gero, gudan, Bilboko blokeoari ihes eginaz armekin sartu zen lehen itsasontzia, Lezok ekarria izan zen, eta gero beste sei-zazpi ontzi haundi, armekin, janarekin, bere esku etorri zitzaizkigun estuasunean eta goseak geundela.

Gero, erbestaldian, zituen etxeak (gaztelu bat ere bai) eta diruak, horrelakorik ez zuten euskaldunak babesteko eta laguntzeko izan ziren, sos bat gabe geratu zen arte; lagunak, erruz nonnahi bazituen ere.

Lehenengo ETakoek ezagutzen dute gizon honen balorea.

Ez gehiago, lehenengo berri hau ematerakoan, baina hau behintzat aitatu beharra zegoen.

Amaitzeko: hiletak Donibaneko eliz nagusian egingo dira asteartean, hilak 12, arratsaldeko 5etan.